

Bilbo, 2016ko abenduaren 16a**EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAK 80 URTE BETE DITU**

- **COJUA-"Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa" sortzeko agindua Agirre Lehendakariaren lehen egintzetako bat izan zen: karguaren zina egin eta bi egunera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.**
- **Iñigo Urkullu Lehendakariak oroitzapena egiteko jardunaldia ireki du. Urkulluz gain, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu eta Eusko Jaurlaritzako Bozeramaile Josu Erkorekak, erkidegoko aholku batzordetako dekanok Juan Canok, COJUAKo lehen Presidente Enrique Lucasek eta erakundeko egungo presidente Sabino Torrek parte hartu dute.**

Iñigo Urkullu Lehendakariak "Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa"ren 80. urteurrena ospatzeko jardunaldia ireki du gaur goizean. COJUA aholku organoaren sorrera Jose Antonio Agirre lehendakariak agindu zuen, 1936an karguaren zina egin eta ordu gutxira, eta erakundea funtsezkoa izan zen autogobernuaren garapenerako eta lehen Eusko Jaurlaritzaren horren eguneroko funtzionamendurako.

IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatua, COJUAREN sorreraren 80. urteurrena ospatzeko ekitaldia balio sinboliko handia duen Bilboko Carlton hotelean egin da, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren lehen Eusko Jaurlaritzaren egoitza izan baitzen. Agintari publiko asko bertaratu dira lan- eta hausnarketa-jardun honen irekiera ekitaldira, non ondokoek parte hartu duten ere: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu eta Jaurlaritzako Bozeramaile Josu Erkoreka, Araubide Juridikoko Sailburuorde eta COJUAKo egungo Presidente Sabino Torre, bere presidenteorde Xabier Unanue, Almeriako Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko Katedradun Juan Cano, COJUAKo lehen presidente eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko egungo kide Enrique Lucas eta IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendari Maite Iruretagoiena.

EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA

"Comisión Jurídica Asesora del Gobierno de Euzkadi" erakundea sortzeko agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren lehen zenbakian argitaratu zen, 1936ko urriaren 9an, Autonomia Estatutuaren testuarekin batera.

Karguaren zina egin eta gero Jose Antonio Agirre Lehendakariak hartu zituen lehen erabakietako bat izan zen. Hauxek izan ziren hartu zituen lehen erabakiak: lehen Eusko Jaurlaritzaren horren sail ezberdinak eratzea, sailburuak izendatzea, Gobernu-programa aurkeztea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria sortzea eta "Comisión Jurídica Asesora del Gobierno de Euzkadi" delakoaren sorrera agintzea. Honela, urte bereko urriaren 22an orduko Justizia eta Kultura Sailburu Jesus Maria de Leizaolak lehen COJUA batzordea sortzeko beharrezkoak ziren izendapenak egiteko ardura hartu zuen.

Bere lana adierazgarria izan zen hasiera-hasieratik, arauak egiteari eta aipatuen zuzentasun juridikoa berrikusteari dagokienean aholkuak ematen eta, halaber, izaera juridikoko beste ataza batzuk burutzen ere. Ondokoak nabarmentzekoak dira, COJUAK argitaratu zituen lehen arauen artean: *"Dekretua, beren etxebizitzetatik at egon eta gerraren ondorioz aipatuetara itzuli ezin diren horiek ezkondu ahal izateko bete beharko dituzten baldintzak ezartzen dituen"* edo *"Dekretua, Euzkadiko Jaurlaritzako kide eta goi karguen bateraezintasunak adierazten dituen"*. COJUA, gainera, euskal umezurtzen eta kaxako umeen etorkizunaz arduratu zen ere, etorkizunean egingo ziren adopzioen lege-oinarriak zehazten saiatu baitzen.

"Comisión Jurídica Asesora del Gobierno de Euzkadi" delakoa Kataluniako *"Comissió Jurídica Assessora Catalana"* eredu hartuta sortu zen. Baina bigarrenak ez bezala, euskal erakundeak lanean jarraitu zuen erbestean ere, txostenak eginaz 1946. urtera arte, gutxienez.

Handik urte askora, 1999n hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak batzordea berreskuratu eta egun ezagutzen dugun bezala sortu zuen, dekretu bidez: COJUA – Aholku Batzorde Juridikoa.

BILBAO, 16 de diciembre de 2016**LA COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI CUMPLE 80 AÑOS**

- **La orden de creación de la "Comisión Jurídica Asesora de Euskadi", COJUA, fue uno de los primeros actos del Lehendakari Agirre: apenas dos días después de su jura, fue publicada en el primer Boletín Oficial del País Vasco.**
- **El Lehendakari, Iñigo Urkullu, ha inaugurado la jornada de conmemoración que ha contado, además, con la participación del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno y Portavoz del Gobierno Vasco, Josu Erkoreka, el Decano de los consejos consultivos autonómicos, Juan Cano, el primer Presidente de la COJUA, Enrique Lucas y el actual Presidente del órgano, Sabino Torre.**

El Lehendakari, Iñigo Urkullu, ha inaugurado esta mañana la jornada de celebración del 80 aniversario de la creación de la "Comisión Jurídica Asesora de Euskadi". La COJUA es un órgano consultivo que el Lehendakari, Jose Antonio Agirre, ordenó crear apenas unas horas después de jurar su cargo en 1936, y que se convirtió en fundamental para el desarrollo del autogobierno y el quehacer diario de aquél primer Gobierno Vasco.

Organizado por el Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, el acto de conmemoración de este 80 aniversario de la creación de la COJUA, ha tenido lugar en el simbólico hotel Carlton de Bilbao, sede del primer Gobierno Vasco del Lehendakari Jose Antonio Agirre. Numerosas autoridades públicas han acudido a la inauguración de la jornada de trabajo y reflexión, en la que han participado también: el Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno y Portavoz del Gobierno, Josu Erkoreka, el Viceconsejero de Régimen Jurídico y Presidente actual de la COJUA, Sabino Torre, su Vicepresidente, Xabier Unanue, el Catedrático de Derecho Constitucional de la Universidad de Almería, Juan Cano, el primer Presidente de la COJUA y actual Vocal del Consejo General del Poder Judicial, Enrique Lucas y la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, Maite Iruretagoiena.

COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI

La orden de creación de la "Comisión Jurídica Asesora del Gobierno de Euzkadi", fue publicada en el primer número del Boletín Oficial del País Vasco, el 9 de octubre de 1936, junto con la publicación del texto del Estatuto de Autonomía.

Fue una de las primeras decisiones que adoptó el Lehendakari, Jose Antonio Agirre, tras jurar su cargo. Comenzó por crear los diferentes departamentos de aquel primer Gobierno Vasco, nombrar a los consejeros, presentar el programa de Gobierno, crear el Boletín Oficial del País Vasco y ordenar la creación de la "Comisión Jurídica Asesora del Gobierno de Euzkadi". De esta manera, el 22 de octubre de ese mismo año, el entonces Consejero de Justicia y Cultura, Jesús María de Leizaola, fue el encargado de ordenar las designaciones necesarias para la constitución de esta primera COJUA.

Ya desde el comienzo, su labor fue notable, tanto en el campo del asesoramiento en la elaboración de normas y su revisión desde el punto de vista de la corrección jurídica, como en otras tareas de índole jurídica. Entre las normas que dictaminó la primera COJUA, cabe destacar el "*Decreto dictando los requisitos a que habrán de sujetarse para contraer matrimonio los que se hallaren fuera de sus domicilios y no pudieren trasladarse a ellos por motivos de guerra*" o el "*Decreto declarando las incompatibilidades de los miembros y altos cargos del Gobierno de Euzkadi*". Además, la COJUA veló por el futuro de los niños huérfanos y los expósitos vascos, intentando sentar las bases legales para futuras adopciones.

La "*Comisión Jurídica Asesora del Gobierno de Euzkadi*", fue creada siguiendo el ejemplo de la "*Comissió Jurídica Assessora Catalana*", sin embargo, a diferencia de aquella, el órgano vasco continuó con su actividad en el exilio, y consta que siguió elaborando informes, al menos, hasta 1946.

Fue ya años después, en 1999, cuando el Gobierno Vasco recuperó este órgano, creándolo por decreto, tal y como lo conocemos ahora: la Comisión Jurídica Asesora, la COJUA.